

MERKATARITZAREN INGURUKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, Donostia turismo handiko eremuaren aitorpenari buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonetako Batzordean 2015ko abenduaren 14ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2014ko uztailaren 4an Madrilgo gobernuak 8/2014 Errege Dekretua argitaratu zuen, hazkunde, lehiakortasun eta eraginkortasunerako premiazko neurriak onartzeari buruzkoa. Aldaketa nagusien artean, merkataritzako ordutegiak liberalizatzea aurkitzen da. Honen ondorioz, Donostiako Udala turismo handiko eremu bat izendatzea derrigortuta dago.

Hau horrela izanik, joan den urtean Merkataritzako Aholku Kontseiluaren bilera bat deitua izan zen, puntu bakar hau jorratzeko. Bertan, Donostiako turismo handiko eremu gisa Parte Zaharra izendatu zen honako mugekin: San Juan kalea (bakoitien aldea), Bretxa merkatal zentroa kanpoan utziz, Boulevard zona (bikoitien aldea), Urgull mendia eta Kaiko pasealekua. Gainera, uztaila eta abuztura mugatzen zen berau.

Aurten, ordea, inolako interlokuzio, eztabaida eta erabaki konpartiturik gabe, Gobernu Batzordeak eremua zabaltzeaz gain, Parte Zaharra osotasunean hartuz eta Zurriola pasealekua gehituz, denboraldia urte guztira zabaldu du; Tokiko Gobernu Batzordeak aldaketa hauek azaroaren 10ean onartu zituen.

Azaroaren 9an Merkataritzako Aholku Batzordea egin zen, eta gai zerrendan gai hau ez zen sartua izan; ez zen bakarra izan, Garbera 18.000 metro karratu gehiagorekin zabaltzeko asmoarekin prozedura berdina eman baitzen gobernuaren aldetik.

Batzordean, delegatuak esandakoa benetan negargarria izan zen. Galderei ez zien erantzunik eman. Gaur egun, merkataritzako ordutegi aldaketa, aholku batzordearen gai ordenean ez izatearen arrazoia, ez dakigu zein den. Bestalde, ordutegi aldaketok merkataritzan izan dezakeen eragina, eta hori aztertzearren eskatu ziren txostenei buruz ez genuen eta ez dugu gaurdaino erantzunik jaso. Beraz, ziur asko ez dira eginak izan. Delegatuak, nola ez, eragile batzuekin bildu zela argitu zuen, baina sindikatuak ez zituen aipatu ere egin.

Horrelako gai batean Gobernuaren gardentasun falta eta erantzun eza deitoragarria izanik, honako MOZIOA aurkeztea behartzen gaitu.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

MOZIOA

-Udalbatzak irmoki eskatzen dio Udal Gobernuari, azaroak 10ean Tokiko Gobernu Batzordean onartutako Turismo handiko eremuaren aitortzea bertan behera utz dezala, eta 2014ko urriaren 22ean onartutakoa bere egin dezala.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia